


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

# KLAUSULA SOZIALEN BALIAGARRITASUNA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

**PAULA OSTOLAZA AGUIRRE**

## Zuzendaria: Eusebio Lasa Altuna

# **Enpresa eta Ekonomia Fakultatea (Donostia)**

2016



## Aurkibidea

|  |           |
|--|-----------|
| <b>1. Lanaren laburpen exekutiboa.....</b>   | <b>5</b>  |
| <b>2. Sarrera.....</b>   | <b>7</b>  |
| 2.1. Lanaren aukeraketaren arrazoia.....   | 7         |
| 2.2. Lanaren helburuak.....  | 7         |
| 2.3. Metodologia.....  | 8         |
| 2.4. Deskribapena.....   | 8         |
| <b>3. Lanaren marko teorikoa.....</b>  | <b>9</b>  |
| 3.1. Zer dira klausula sozialak.....   | 9         |
| 3.2. Klausula sozialak sortzen dituzten instituzio publikoak.....  | 10        |
| 3.3. Klausula sozialen araudia.....  | 12        |
| 3.3.1. Nazioartea, Europar Batasuna eta Espainiako Estatua.....  | 12        |
| 3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoa: araudia eta adibideak.....  | 15        |
| 3.4. Klausula sozial motak.....  | 20        |
| 3.5. Klausula sozialak eta merkatuko lehia librearen arteko gatazka.....   | 23        |
| 3.6. Etorkizunari begira.....  | 24        |
| <b>4. Landa azterketa.....</b>   | <b>27</b> |
| 4.1. Ikerketaren azalpena.....   | 27        |
| 4.2. Emaitzak.....   | 27        |
| 4.2.1. Zer dira klausula sozialak.....   | 27        |
| 4.2.2. Administrazio publikoekin erlazioa.....   | 29        |
| 4.2.3. Klausula sozialei buruz indarrean dagoen legedian, enpresa sozialek egin nahiko lituzketen aldaketak..... | 30        |
| 4.2.4. Klausula sozial motak.....  | 30        |
| 4.2.5. Klausula sozialak eta merkatuko lehia librearen arteko gatazkaren iritzia.....                            | 31        |
| 4.2.6. Etorkizunari begira.....  | 32        |
| 4.3. Ondorioak.....  | 33        |
| <b>5. Ondorio orokorrak eta aurrera begira ikerketa-lerro berriak.....</b>                                       | <b>35</b> |

|                              |           |
|------------------------------|-----------|
| 6. <b>Bibliografia</b> ..... | <b>37</b> |
| 7. <b>Arautegia</b> .....    | <b>39</b> |
| 8. <b>Eranskina</b> .....    | <b>41</b> |

## **1. Laburpen exekutiboa**

### Euskaraz

Lan honen helburu nagusia edo lan honekin aztertu nahi izan da ea benetan klausula sozialak kontratazio publikoan barneratzen diren, hau da, kontratazio publiko bat lortzeko klausula sozialak erabakikorrak diren ala ez.

Lan hau bi zati nagusitan banatuta dago, batetik marko teorikoa eta bestetik, landa azterketa. Marko teorikoan, Administrazioaren eta autore ezberdinen irtzia kontuan izanik klausula sozialen deskribapena ematen da, horretarako autore ezberdinen lanak irakurri eta web orrietako informazioa aztertuz.

Landa azterketan, berriz, errealtitatea ezagutu ahal izateko, klausula sozial eta kontratazio publikoari buruz esperientzia duten aspektu sozialeko enpresei, hala nola, Emaús, Gureak eta EHLABE-ri elkarritzetak egin zaizkie eta bertan lortutako informazioa barneratu da.

Aurrez lortutako datuekin ondorioak erakutsiko dira azkenik eta etorkizunari begira ikusten den egoera ere azalduko da.

### Gaztelaniaz

El objetivo que con este trabajo se quiere conseguir es analizar si las cláusulas sociales se aplican en la contratación pública, es decir, si para conseguir un contrato público las cláusulas sociales son relevantes o no.

Este trabajo está dividido en dos partes principales, por un lado, el marco teórico y por otro el trabajo de campo. En cuanto al marco teórico, teniendo en cuenta la opinión de la Administración y de algunos autores relevantes, se describen las cláusulas sociales. Para ello analizamos las opiniones de los diferentes autores y demás organismos competentes.

En el trabajo de campo, para poder conocer la realidad, se han realizado entrevistas a dos empresas sociales como Emaús y Gureak y a una entidad social como EHLABE que tienen experiencia contrastada en el campo de las cláusulas sociales y de la contratación pública.

Con toda la información obtenida mostramos las conclusiones y las líneas de actuación de cara al futuro.



## **2. Sarrera**

### **2.1. Lanaren aukeraketaren arrazoia**

Nahiz eta kontratacio publikoari buruzko araudia aspaldi sortu zen eta gizartearen zati txiki bat aspektu sozialen alde borrokatzen aritu den urte guztian, gaur egun piskanaka garrantzia handia hartzen ari den gaia da. Gero eta gehiago gara arlo sozialari begiratzen diogunak eta beste hainbat erakundek urte guzti hauetan egin duten lana ekonomia solidario baten alde, ez da alperrikakoa izan. Ez enpresa sozialak bakarrik, ohiko enpresak eta gizartea orokorrean kontzientziatzen hasi da gai honek duen garrantzia eta orain da momentua, informazioa azalera ateratzeko eta errealitatea ezagutzeko.

Pertsonalki, mundu hobeago baten aldeko borroka oso garrantzitsua iruditzen zait. Lan merkatura heltzeko zailtasunak dituzten pertsonen alde, ingurumenaren alde eta antzeko gaien alde lan egiten duten erakunde eta pertsonak ez dute bide erreza eduki urte guzti hauetan, hala ere, ez dute amore eman eta ekonomia kapitalista orokor baten aurka borrokatu dira erabat eskubide sozialak lortzeko asmoz. Hainbat eskubide lortzeaz gain, gizartearen zati handi bat bereganatu eta kontzientziatu dute denon artean lan egin behar dugula.

Bestalde, enpresa merkantilak zer diren eta nola funtzionatzen duten ezin hobeto irakatsi digute, ekonomia kapitalista batean aurrera egiten, baina aspektu sozialeko enpresa eta erakundeei buruz ezer gutxi jakin dugu, baita ekonomia solidarioari buruz ere. Ondorioz, era egokia iruditu zait ekonomiaren beste alderdia ezagutzeko, enpresa sozialen funtzionamendua eta pentsakera ulertzeko eta nire aportazio txiki bat egin ahal izateko informazio hau azalera ateraz.

### **2.2. Lanaren helburuak**

Autore asko daude klausula sozialei buruzko teoria azaltzen dutenak eta Administrazioak ezagutarazi nahi duen informazioa zabaltzen dutenak. Araudi mordoa sortu da Nazioarte mailatik hasita Estatu mailaraino, teorikoki ezin hobeto azaldu eta arautu dute klausula sozialek kontratacio publikoan izan behar duten aplikazioa. Hala ere, errealitatean teoria modu egokian aplikatzeak zailtasun handiagoak ematen ditu, ondorioz, lan honekin aztertu nahi dugu ea benetan klausula sozialak kontratacio publikoan barneratzen diren, hau da, enpresentzat kontratacio publiko bat lortzeko klausula sozialak erabakikorrak diren ala ez.

### 2.3. Metodologia

Lan hau burutzeko, lehenengo zati teorikoan azaldu dudan informazioa, autore ezberdinen lanak irakurri eta web orrietako informazioa aztertuz lortu dugu. Errealitatea ezagutu ahal izateko, hau da, landa azteketa burutzeko, gai honen inguruan esperientzia duten aspektu sozialeko enpresei elkarritzeta kualitatiboak egin dizkiegu.

### 2.4. Deskribapena

Ikerketa hau sarrera batekin hasten da. Bertan, aipatzen ditugu lan hau aukeratzeko arrazoiak, zeintzuk diren lan honen helburuak, zer nolako metodologia erabili dugun eta ikerketa hau burutzeko finkatu dugun eskema nagusia.

Lan hau burutzeko bi atal nagusi antolatu ditugu. Alde batetik, hurbilketa teorikoa eta bestetik landa-azterketa elkarritzeta kualitatiboen bitartez. Hurbilketa teorikoari dagokionez, sei azpiatal atera ditugu informazioa modu egokian sailkatzea eta hobeto azaltzea. Elkarritzeta kualitatiboen bitartez berriz klausula sozialak eta kontratacio publikoari buruz esperientzia duten enpresa eta erakundeei euren iritzia eskatu diegu. Horretarako Emaús, Gureak eta EHLABE elkarritzetatu ditugu.

Azkenik, ondorio orokorrak laburbildu ondoren aurrera begirako ikerketa-lerro berriak proposatu ditugu.

### **3. Lanaren marko teorikoa**

#### **3.1. Zer dira klausula sozialak**

Klausula sozial bezala ulertzera ematen da, salerosketa komertzial batean zerbitzua eskaintzen duen alderdiak, kontratu publiko bat aurrera eramateko, lizitatzaleak onartuko dituen baldintza sozial eta laboral zehatz batzuk, hala nola, eskubide laboralak bermatzea, beste hainbat baldintzen artean (Molina, 2008; Larrazabal, 2012, 100. orrialdean zitatu). Honela, sektore publikoak kontratu hauek burutuko ditu, ez soilik zerbitzu edo ondasunak eskuratzeko, baita helburu sozialak lortzeko ere.

Klausula sozialak, behin kontratacio publikoko prozesuan barneratuta, gutxietsitako kolektiboen barneraketa sozio laboralei eta ingurumeneko praktika jasangarriei mesede egiten dieten irizpideak dira. Klausula hauek, legalki aztertuta eta onartuta daude kontratacio publikoko araudian (Larrazabal, 2012).

Gizatea(2016) elkartearen ustez, klausula hauek kontratacio publikoko prozesuan txertatuta dauden hainbat irizpide bezala defini daitezke, eta kontratu baten fase ezberdinetan barneratu, hala nola:

- Onarpen irizpide bezala, izaera sozialeko baldintza batzuk bete edo integrazio sozial eta profesionalean esperientzia edukitzea eskatuz enpresei, kontratatu ahal izateko, adibidez jarduera sozial zehatz bat burutzen duen enpresa izatea eskatuz.
- Balorazio irizpide bezala, izaera sozialeko ezaugarriak seinalatuz, kontratuaren aukeraketan, ezaugarri horiek betetzen dituzten enpresak hobeki baloratuak izango dira, hau da, kontratacioan lehentasuna izango dute. Adibidez, enpresak duen langileriaren ehuneko batek, lanpostura heltzeko zailtasunak izatea.
- Obligazio bezala, izaera sozialeko beharrezko baldintzak seinalatuz, kontratua aurrera eramateko enpresak nahitaez bete beharko dituen baldintzak ezarriz. Adibidez, kontratu publiko bat egin ahal izateko, atzerapen mota bat duten pertsonak kontratatu behar izatea enpresak.

Irizpide hauek, arlo profesionalean justizia hobetzen dute, zailtasun gehien dituzten kolektiboei lan munduan aukerak emanet eta aurrerapen ekonomiko jasangarria gauzatzen dute inguruneari eginiko kalteak minimizatz klausula hauei esker.

Azken finean, klausula sozialak tresna oso garrantzitsuak dira kontratacio publikoan politika sozialak eta ingurumeneko politikak barneratzeko.

Ondorengo puntuaz azalduko dugun araudiaren arabera, Europar Batasunean, Spainiar Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, erreferentziazko legerian daude erregulatuta, besteak beste.

Kontratu publikoetan klausula sozial hauek barneratzeak, hainbat onura sortzen dituela esan dezakegu. Andaluziako Juntak (Junta de Andalucía, 2011, 11) argitaratutako txostenean azaltzen du, onurak lor ditzakeela, bai gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzat, bai Administrazio Publikoentzat, gizartearentzat orokorrean eta baita ingurumenarentzat ere .

Batetik, gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonetan zentratuz, lan mundura heltzeko zaitasun gehien duten biztanleria aktiboari baliabide ekonomiko eta lanpostu zuzenak ematen dizkiete, beraien autonomia bultzatzuz, honela pertsonaren segurtasuna, lanean aritzeko gaitasuna eta gizartean duten parte hartzea handituz, gehienetan.

Bestetik, Administrazioei dagokienez, politika soziala babesten dute, enplegua bultzatzuz, honela, langabeziagatiko laguntzak, errenta sozialak edo beste hainbat prestazioetara zuzenduko litzatekeen gastu publikoa murriztuz. Aipatu behar da, kotizazio tasa handitzeagatik lurraldlean sortuko den sarrera gehikuntza ere.

Jarraian, gizarte osoarentzat sortzen dituen onuren artean, tresna oso garrantzitsua da gizartea bere osotasunean elkartzeko, baztertuta dauden guneen egoera ekonomikoa hobetzeko eta enpresek ingurumenarekiko eta gizartearekiko duten ardura bultzatzeko.

Azkenik, ingurumenari begiratuz, energia berritzaleak eta berau aurreztekoei neurriak bultzatzen ditu, osagai toxikoak ezabatzen laguntzen du eta gizartean gehien nabaritzen den aldaketa, birziklapena eta materialak berrerabiltea bultzatzen du.

### 3.2. Klausula sozialak sortzen dituzten instituzio publikoak

Atal honetan, kontratacio publikoko eskaintza bat egiten denean, aplikatu behar diren klausula horiek sortzen eta funtzionamendua kontrolatzen duten Nazioarteko, Europar Batasuneko, Estatu Espainoleko eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak zein diren azalduko dugu.

Hasteko, Nazioarte mailan bi erakunde nagusi ditugu, ondorengo atalean azalduko ditugun KPA (Kontratacio Publikoari buruzko Akordioa), 94. Hitzarmena eta 84. Gomendioa gauzatu dutenak, hala nola, MMA (Munduko Merkataritza Antolakundea) eta LANE (Lanaren Nazioarteko Erakundea) deitura duten erakundeak.

MMA, Geneva -n (Suitza) egoitza duen eta 1995. urtean sortu zen nazioarteko erakunde bat da, 1986-1994 artean gauzatutako "Uruguayko Erronda" deituriko negoziaketen ondorioz sortua. Erabaki guztiak, eragiketa komertzialak

mantentzen dituzten kide diren gobernuen artean negoziaketa eginez hartzen dira, beraien artean dauden arazoak konpontzeko, modu honetara. Negoziaketa hauen helburua, ondasun eta zerbitzu ekoizleei eta esportatzaile eta importatzaileei beraien eragiketak aurrera eramatzen laguntzea da, gobernuek helburu sozial eta ingurumenekoak lor ditzaten (Munduko Merkataritza Antolakunde, 2016).

LANE nazioarteko erakundea, 1919. urtean sortu zen lehenengo Mundu Gerrarekin amaitu zuen Versalles -eko Itunaren zati bezala, eta 1920ean bere egoitza Geneva -n (Suitza) ezarri zuen. Erakunde honen sorrera segurtasun, gizatasun, ekonomia eta politikari buruzko hausnarketak bultzatua izan zen, gainera, lehen momentutik islatu du aspektu sozialen garrantzia gizartean, bere misioa honako hau izanik: *“Justicia soziala beharrezkoa da erabatekoa eta iraunkorra izango den bakea lortzeko”* (Organización Internacional del Trabajo, 2016).

Erakunde honek, 186 Estatu kideko gobernu eta langileak elkartzen ditu, laneko arauak ezarri, politika ezberdinak azaldu eta guztientzako lan baldintza egokiak lortzeko helburuarekin. Gaur egun, egoera ekonomiko hobea eta lan baldintza egokiak lortzen laguntzen du, Estatu ezberdinak langile eta gobernuek garapen eta aurrerapenez goza dezaten (Organización Internacional del Trabajo, 2016).

Europar Batasunaren barnean, Europako Parlamentua eta Batzordea dira honetaz arduratzen diren erakundeak. Parlamentuan zentratuz, 1962. urtean eratu zen izen horrekin eta bere egoitzak Estrasburgo -n (Fantzian), Brusela -n (Belgika) eta Luxenburgo -n ditu. Erakunde hau, eztabaidea politikoak mantentzeko eta Europar Batasun mailan erabakiak hartzeko elkargune garrantzitsua da. Europar Batasuneko erakunde bakarra da, sufragio bidez aukeratua. Parlamentuan 751 diputatu daude eta guztiak Estatu kideen botazio bidez aukeratzen dira, herritarren ordezkari izango direnak, hauen interesak defendatzu.

Europar Batasuneko herritarren eskubide pertsonalak, zibilak, politikoak, ekonomikoak eta sozialak defendatzen ditu eta eskubide horiek Europa barneko araudian barneratzen ditu. Garrantzi handia ematen die askatasun, giza eskubide eta demokraziari, bai Europa barnean zein mundu osoan (Europako Parlamentua, 2016; Europar Batasuna, 2016).

Jarraian, Estatu Spainolari dagokionez, kontratacio publikoan klausula sozialak barneratzeak Konstituzioaren babesak du hainbat artikulutan. Konstituzioak Estatu Spainola, estatu sozial eta demokratiko moduan aldarrikatzen du<sup>1</sup>. Horrez gain, botere publikoek aurrerapen sozialaren alde baldintza egokiak bultzatuko dituztela azaltzen du eta enplegu osorako politikak gauzatuko dituela<sup>2</sup> (Boletín Oficial del Estado, 1978).

<sup>1</sup> Spainiako konstituzioaren 1.1 artikuluak dio “España se constituye en un Estado social y democrático de Derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político”

<sup>2</sup> Spainiako konstituzioaren 40. Artikuluak dio “Los poderes públicos promoverán las condiciones favorables para el progreso social (...). De manera especial realizará una política orientada al pleno empleo”

Estatu Spainolean Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa da enkargatua. Estatuko Administrazio Orokorreko departamentua da, Gobernuaren politikak gauzatzeaz arduratzen dena. Nahiz eta hainbat gaien inguruko politikak landu, funtzió publiko eta arlo sozialen inguruko politikak barneratzen ditu.

Erakunde honek ibilbide luzea jorratu du gaur egunera ailegatzeko eta beraz, sorrera eman zen garaitik hainbat aldaketa gauzatu dira bere barnean. Espainiako Gobernuaren menpe dagoen instituzio hau, XVIII. mendean sortu zen eta nahiz eta urte batzuk lehenago hasi ziren aspektu sozialei garrantzia ematen, 1986. urtetik aurrera emango dira giza baliabideen inguruan gaur egungo Ministerioa osatzeko aldaketa garrantzitsuenak (Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioa, 2016).

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Estatu Spainoleko Gobernuak onartzen ditu legeak, eta erkidego autonomoek lege horietan oinarritu behar duten beren araudia. Ahalmen osoa dute Eusko Jaularitza eta instituzio autonomoek beren legedia gauzatzeko, baina estatuko legedian oinarrituta, beti ere. Euskal gobernuaren barnean, Eusko Legebiltzarra da alderdi honen ardura hartzen duen erakundea. 1979. urtean kokatzen da euskal parlamentuaren lehen sorrera, baina bere gaur egungo egoitza 1982. urtean finkatu zen Gasteizen (Eusko Legebiltzarra, 2016).

Nahiz eta legeak Legebiltzarrak gauzatu, Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzi handia hartzen dute kontratacio publikoa aurrera eramatzen duten Diputazio eta Udaletxeek. Izen ere, Eusko Jaurlaritzak aspektu hauek arautu egiten ditu, baina hiru probintzietako Diputazioek eta herri ezberdinaketa udaldeetako lan asko egiten dute kontratacioari dagokionez euskal enpresekin.

### 3.3. Klausula sozialen araudia

#### 3.3.1. Nazioartea, Europar Batasuna eta Espainiako Estatua

Administrazio publikoek kontratu publikoetan barneratu behar dituzten edo barneratu ahal dituzten klausula sozialak legean daude araututa, honela gizartetik baztertutako pertsonak eta ezgaitasuna duten langileria aktiboa lan merkatuan sartzen eta beste zenbait alorretan onurak ematen, adibidez ingurumenean, laguntzen du, ekonomia eta mundu solidarioago baten alde lan eginez.

Atal honetan hainbat araudi ezberdin azalduko ditugu era laburrean, hala nola, nazioarteko araudia, Europar Batasuneko araudia, Estatuko araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.

Nazioarteko araudia dagokionez, bi zati garrantzitsutan bana dezakegu, LANE -k argitaratutako 94. Hitzarmena eta 84. Gomendioa, batetik, eta MMA-ko Kideek negoziatutako KPA, bestetik.

LANE-k argitaratutako hitzarmenak eta laguntzen dion gomendioak duten helburua, Administrazio Publikoek eraikuntza, ondasun eta zerbitzuen lorpenerako egiten dituzten kontratuak ekiditea da, langileen babes soziala baldintza eskasetan badago. Honekin lortu nahi da, sozialki arduratsua den kontratacio publikoa bultzatzea, lan baldintza eta soldatu egokiekin (Organización Internacional del Trabajo, 2008).

KPA-ri dagokionez, berriz, MMA-ko akordio bat da 1994. urtean sinatua baina 2014. urtean berritu dena, hainbat kidek negoziatuta, beraz, ez dira kide guztiak akordio honen parte. Gaur egun, soilik 18 partaide ditu, MMA-ko 46 kide barneratzen dituztenak. Gainerako hogeita bederatzi kideak gainbegiratzale moduan daude kontratacio publikoko batzordean (Akordioaren administrazioa eta funtzionamendua aztertzen du) eta horietatik bederatzi, akordiora lotzeko bidean daude. Garapen bidean dauden herrialdeak, akordioan barneratu nahi izanez gero edo honi buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, MMA-ko idazkaritzak tratu berezia eskainiko die laguntza emateko asmoz.

Akordio honen helburu nagusia, hau osatzen duten parteen artean kontratacio publikoaren merkatuak zabaltzea da, honela, herrialde hauen artean, ondasun, zerbitzu eta eraikuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek, euren artean eragiketak egin ahal izango dituzte (Organización Mundial del Comercio, 2016).

Europar Batasuneko araudian zentratuz, bi Zuzentarau aipatu behar ditugu. Batetik, “Zerbitzu, hornidura eta obren kontratu publikoen adjudikazioari buruzko Europar Parlamentu eta Batzordearen 2004/18/CE Zuzentaraua<sup>3</sup>” eta bestetik “Kontratacio publikoari buruzko Europar Parlamentu eta Batzordearen 2014/24/UE Zuzentaraua”.

Lehenengoari dagokionez, 1992. urtetik hasita, gerora datozen hainbat Zuzentarau, testu bakar batean bilduko dira, 2004ko Martxoaren 31ean indarrean sartuko dena. Araudi hau indarrean sartzeak, kontratacio publikoan izaera sozial eta ingurumeneko izaera duten aspektuak kontuan hartzea bultzatu du. Kontratu publiko bat aurrera eramateko, prezio hoherena ez ezik, gizarteari eta ingurumenari lagunduko dioten aspektuak begiratzea lortu da, kontratuaren edozein fasetan (Diario Oficial de la Unión Europea, 2004).

Bigarren araudia dagokionez, 2014ko otsailaren 26an sartu zen indarrean eta aurreneko Zuzentaraua indargabetu zuen. Kontratacio publikoa, Europaren garapenerako zati oso garrantzitsua bihurtu da, batez ere 2010eko Martxoaren 3an Europako Batzordeak ezarri zuen “Europa Estrategia 2020” izeneko garapen estrategia aurrera eraman ahal izateko.

---

<sup>3</sup> “Zerbitzu, hornidura eta obren kontratu publikoen adjudikazioari buruzko Europar Parlamentu eta Batzordearen 2004/18/CE Zuzentaraua” honakoa dio: “La presente Directiva está basada en la jurisprudencia del Tribunal de Justicia, en particular la relativa a los criterios de adjudicación, que clarifica las posibilidades con que cuentan los poderes adjudicadores para atender las necesidades de los ciudadanos afectados, sin excluir el ámbito medioambiental o social (...).”

*Europar Batzordearen ustez, Europa 2020 hurrengo hamarkadarako Europar Batasunaren hazkunde estrategia da. Aldaketen mundu batean, Europar Batasunak ekonomia bizkor, jasankor eta integratzaile bat eskuratzea nahi da. Hiru lehentasun hauek, elkar babesten direnak, Europar Batasunean eta bere Estatu kideetan lanpostu tasa altuak eta kohesio soziala lortzen lagunduko dute. Zehazki, Europar Batasunak 2020rako bost helburu ezarri ditu, lan arloan, berrikuntzan, hezkuntzan, integrazio sozialean eta klima/energian* (Barroso, 2010).

Beraz, Europarentzat lortu nahi den garapen hau aurrera eraman ahal izateko, kontratacio publikoari buruz indarrean dauden araudiak berrikusi eta egokitasunak sartu behar dira. Horregatik, araudi berri bat sartu da indarrean, aurretik zegoen 2004ko araudiari aldaketak egin eta ondorioz, hau indargabetuz. Zuzentara berri hau sortzeko aurrera eraman diren aldaketen helburu zehatzen artean gastu publikoaren efizientzia handitzea azpimarratu beharra dago, zehazki, ETEek(Enpresa Txiki eta Ertainak) kontratacio publikoan duten parte hartzea handitzea eta helburu sozialak lortzeko kontratacio publikoa era egokiagoan erabiltzea.

2014/24/UE Zuzentarauan administrazio publikoek gauzatzen dituzten kontratazioei buruzko arauak ezartzen dira, kontratacio moduan ulertz, kontratu publiko baten bitarte, eraikuntza lanak, hornikuntza eta zerbitzuen lortzea, beti ere beraien balioa, jada araudi honen 4. artikuluan<sup>4</sup> zehaztuta dauden kantitateen berdina edo handigoa bada (Diario Oficial de la Unión Europea, 2014).

Estatu Spainoleko araudian azpimarratu behar dira SPKL 2007 ( Sektore publikoko kontratuaren legea) eta SPKLTB 2011 ( Sektore Publikoko kontratuaren legearen testu berritua). Horiez gain, aipatu behar da “SPKL 2015 Aurreproiektua”, Europar Batasunak sortu dituen Zuzentaraak Spainiako Estatuan ezartzeko asmoz.

2007ko legea indarrean egon zen 2011ko abenduak 16 arte eta bere lehenengo artikuluan azaltzen duen moduan, kontratacio publikoa erregulatzeko helburuarekin sortu zen, legeak hainbat printzipio babesten dituela bermatzeko, lizitatzaireen arteko berdintasuna, adibidez. Lortu nahi da, obra, ondasun eta zerbitzuetara zuzendutako fondoak era eficiente batean erabiltzea<sup>5</sup> (Boletín Oficial del Estado, 2007).

---

<sup>4</sup> “Kontratacio publikoari buruzko Europar Parlamentu eta Batzordearen 2014/24/UE Zuzentaraaua”k laugarren artikuluan dioen moduan: “La presente Directiva se aplicará a las contrataciones cuyo valor estimado, el impuesto sobre el valor añadido (IVA) excluido, sea igual o superior a los siguientes umbrales:

- a) 5 186 000 EUR, en los contratos públicos de obras(...)
- b) 134 000 EUR, en los contratos públicos de suministro y de servicios adjudicados por autoridades, órganos(...)
- c) 207 000 EUR, en los contratos públicos de suministro y de servicios adjudicados por poderes adjudicadores subcentrales(...)
- d) 750 000 EUR, en los contratos públicos de servicios para servicios sociales(...)”

<sup>5</sup> SPKL 2007 legearen lehenengo artikuluan dio: “La presente Ley tiene por objeto regular la contratación del sector público, a fin de garantizar que la misma se ajusta a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato entre los candidatos, y de asegurar, en conexión con el

Sektore publikoko kontratuen 2011ko lege berria, Europar Batasuneko araudien moduan, aurrez azaldu dugun 2007ko legea berrikusi, beharrezko aldaketak gauzatzuz eta kontratu publikoak aurrera eramateko finantziazio pribatuari buruzko araudia barneratzuz sortu den testu berritu bat da. Gobernuak 2011ko azaroaren 14an onartutako legea da eta helburu bezala sektore publikoko kontrataazioa erregulatzeari du, aurreko legearen lehenengo artikuluaren berdina izanik lege honen objektua (Boletín Oficial del Estado, 2011).

Bestalde, “SPKL 2015 Aurreproiekta”ren bidez, Espanola ezartzen dira lehen azaldu dugun 2014/24/UE eta baita Zuzentara hori bezalako beste batzuk Europar Batasunak onartutakoak. Baino, horiek aplikatzeaz gain, lege berri honen helburu da ere Espaniako sektore publikoaren kontratacio sistema berri bat diseinatu eta gauzatzea, sistema hobe bat, helburu publiko egokiak lortu ahal izateko. Kontratacio publikoa, estatuan politika ezberdinak ezartzeko tresna bilakatzea da helburua, gai sozialak, ingurumeneko gaiak, berrikuntza eta garapena eta beste hainbat gai publiko barneratzen dituzten politikak aurrera eramateko.

Araudi hau gauzatzeko zentratu diren helburuen artean dago prezio-kalitate erlazio egoki bat lortzea ere, horretarako lehentasuna emanez kalitate, ingurumena, alderdi sozial edo berrikuntzari, prezioa eta kostuak alde batera utzi gabe, kontratu publiko bat egiteko garaian.

Lege berri honetan, araudi zorrotzagoa ezarri da, langileen eskubideen alde, enpresa eta langileen onurarako, adibidez, langileen lan baldintza hobeak eskatuz kontratacio bat burutu ahal izateko, beharrezko izanik lan baldintza egokiak betetzea eskaintzatik at geratu nahi ez duten enpresentzat (Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, 2015).

### 3.3.2. Euskal Autonomia Erkidegoa: araudia eta adibide batzuk

Euskal Autonomia Erkidegoak, sektore publikoko kontrataazioari dagokion araudia garatu eta ezartzeko ahalmena du. Aspektu honetan autonomia erkidegoak asko sakondu ez duen arren, 1996. urtean Dekretu bat onartu zen EAEko administrazio publikoen kontrataazioari buruzkoa, obra, ondasun eta zerbitzuen kontrataazioa erregulatzeko. Aurrerago, Foru Aldundi eta beste instituzio publiko batzuk, Estatuko SPKL 2007 legearen arauen arabera egokitzen hasi ziren kontrataazioaren araudia.

Aspektu sozialak kontratacio publikoan barneratzeak duen garrantzia kontuan izanik eta ingurumena eta gizarteari begiratuz Gobernu arduratsu bat lortzeko asmoz, EAEko Gobernuak Arau bat onartu zuen “Agindua” deiturikoa, ingurumeneko aspektu eta aspektu sozialei buruzko klausula sozialak administrazio publikoen kontrataazioan barneratzeko. Hala ere, azpimarratu beharra dago, araudi mota hauek ez dutela izaera legegilerik, beraz, efikazia

---

objetivo de estabilidad presupuestaria y control del gasto, una eficiente utilización de los fondos destinados a la realización de obras, la adquisición de bienes y la contratación de servicios(...)"

handiagoa lortuko litzatekeela araudi honen edukia, izaera legegilea duen lege batean ezarrita.

Horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako lege berri bat aipatu beharra dago, apirilaren 7ko 3/2016 legea, zehazki, zenbait klausula sozial kontratacio publikoan sartzeko. Estatu Espainoleko SPKLTB 2011ko legeak, administrazio publikoek gauzatutako kontratazioetan barneratu daitezkeen klausulei buruzko mekanismoak ezartzen ditu. Erkidego Autonomo bakoitzak kontuan izan behar duen oinarrizko legea da, baina beren lurraldean garatu eta ezartzea bakoitzaren esku dago, horregatik, lege berri hau onartu du Gobernuak, gure lurraldean gauzatzeko. Lege honen helburua, Estatuko oinarrizko legea kontuan hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzioek, kontratacio publikoan barneratu behar dituzten klausula sozialak ezartzea da (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016).

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak(2016) azaldu duenez, kontratacio publikoa sustatzeko aukera berriak agertu dira eta horregatik, 2016ko apirilaren 4ean Eusko Legebiltzarrean elkartu dira Gizatea eta REAS Euskadi instituzio publikoak, kontratacio publikoari buruzko planteamendu eta ideia berriak aurkezteko. Gizatea (Euskadiko Gizarteratze Enpresen Erakundea) eta REAS Euskadi (Red de Economía Alternativa y Solidaria) erakundeek Euskal Gobernuari eskatu diote, beste hainbat eskaera garrantzitsuen artean, langabezia tasa altua den krisi garai honetan, ezgaitasun motaren bat duten pertsonentzat lan mundura sartzea zailagoa gertatzen denez, merkatuan barneratzeko aukerak zabaltzea kontratacio publikoa hauengana bideratuz.

Eusko Legebiltzarrari hainbat eskaera zehatz egin dizkiete REAS Euskadi erakunde publiko hauen ordezkariek. Batetik, erosketa publiko sozialki arduratsua sustatzeko neurri egokiak ezartzea eta hori arautuko duen euskal arautegi baten ezarpena ikertzea. Bestetik, Euskal Gobernuak, REAS eta beste erakunde publiko batzuen laguntzaz, kontratacio publiko sozialki arduratsua gauzatzea eskatzen dute. Azkenik, partidu politikoei galdatzen die, jarduten duten erakunde publikoetan kontratacio publikoa sustatzea eta beraien erosketa politikan klausulak barneratzea.

- Adibideak

Aurreko ataletan, Administrazioen kontratu publikoetan barneratzen diren klausulei buruzko informazio teorikoa azaldu dugu eta errealtitatean nola ezartzen diren ulertzeko, kasu praktiko batzuk aipatuko ditugu jarraian. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintziako udal ezberdinek gauzatu dituzten kontratu publikoen adibideak azalduko ditugu. Gipuzkoan Debako udalak eginak, Bizkaian Bilbokoak eta Araban Gasteizeko udalak.

## Debako Udala

Debako Udalak (Gizatea, 2011) "Lorategi zerbitzua eta landare-guneen mantentze zerbitzua" lortzeko asmoz, kontratu publiko bat gauzatu zuen 2011. urtean. Kontratazioa burutu aurretik, eskaintzak guztiak ondo aztertu behar dira eta puntuazioen bidez, eskaintza hoberena aukeratu. Kasu honetan, Debako Udalak kontratuaren ezaugarri ezberdinei puntuazio zehatz bat esleitu zien:

- Eskaintza ekonomikoari 35 puntu
- Eskainiko duen zerbitzuaren ezaugarri teknikoei 45 puntu
- Ezaugarri teknikoen hobekuntzei 15 puntu
- Ingurumeneko hobekuntzei 5 puntu

Nahiz eta kontratuaren zati bakoitzari puntuazio zehatz bat esleitu, hobera eginiko aldaketek puntuazioa gehitu dezakete eta beraz, eskaintza hobetu.

Eskaintza ekonomikoari dagokionez, prezioaren %1eko jaitsiera bakoitzeko, 3,8 puntu gehituko dira eta %10 baino jaitsiera handigoa izanez gero, puntuazioa beste modu batera kalkulatuko da.

Kontratatura izango den enpresak eskainiko duen zerbitzuen ezaugarri teknikoen puntuazioa hainbat zatitan dago banatua:

- ✓ 20 puntu esleituko zaizkio langileriari eta atal honetan hainbat alderdi baloratuko dira. Baldintza askoren arteko batzuk dira ondorengo hauek, puntuazioa gehitu dezaketenak. Ezgaitasuna duten langileak kontratatzeagatik 10 puntu gehitu daiteke, zerbitzua gainbegiratuko duen arduraduna izateagatik 2 puntu, langileei prestakuntza emateagatik beste 2 puntu eta langileen lan segurtasuna bermatzeko eta arriskuak ekiditeko plana burutzeagatik 2 puntu gehitu daitezke eskaintzan.
- ✓ 15 puntu esleituko zaizkio makineria eta egin beharreko azterketei. Baloratuko diren eta puntuazioa gehitu dezaketen baldintza batzuk honako hauek dira; batetik, makinen ezaugarriei buruzko informazio zerrenda eskaintza, eskainiko duten zerbitzua betetzeko baliabideen kalitatea eta oso garrantzitsua izango da lanerako erabiliko den ekipoa ingurunera ondo egokitzea. Bestetik, onera baloratuko da makineria kantitatea eta errendimendu handiena, beti ere ingurumena errespetatuz, energia berritzaleak eta zarata murrizketa defendatuz. Azkenik, lorategien mantentze planaren deskribapen egokia hartuko da kontuan.
- ✓ 5 puntu esleituko zaizkio antolaketa orokorrari. Lanaren proiektua ( lanorduak, lan ekipoak, programazioa...) eta planoak aurkeztea baloratuko dira.
- ✓ Beste 5 puntu zerbitzuaren hasierako planifikazioaren kontrola eta kalitate kontrolari.

Ezaugarri tekniko eta ingurumeneko hobekuntzei dagokienez, lizitaztak bakoitzak memoria bat aurkeztu beharko du, zerbitzuaren plana eta egutegia, aurrekontua eta gainontzeko ezaugarriekin, Udalak kontuan hartuko dituenak.

Behin lizitaztak guztien eskaintzak ondo aztertu eta baloratu ondoren, Debako Udalak kontratazioa gauzatuko du, puntuazio handiena lortu dutenen artean egokiena aukeratuz.

## Bilboko Udala

Bilboko Udalak (Gizatea, 2010), “La Cantera” plazan kokatuta dagoen Lan Ekintza-Bilbao erakunde publikoaren egoitzan instalazioen egokitze erreformak aurrera eramateko, kontratacio publiko bat gauzatu zuen 2010. urtean.

Kontratu publiko honetan parte hartu nahi duten lizitatzailaek hainbat baldintza bete beharko dituzte nahitaez, baina badaude beste hainbat klausula Bilboko udalak ezarritakoak eta eskaintza aukeratzeko momentuan, klausula horiek betetzen dituzten enpresak hobeki baloratuak izango dira.

Udalak, eskaintzaren zatiak puntuazio bidez baloratzen ditu:

- Eskaintzaren azterketa teknikoari 35 puntu
- Zerbitzua gauzatzeko denborari 5 puntu
- Prezioari 60 puntu

Eskaintzaren azterketa teknikoa hiru zatitan banatu du eta horietako bakoitzari puntuazio zehatz bat esleitu dio:

- ✓ Erreforma zerbitzua nola gauzatuko den, hau da, lan plangintza egoki bat aurkeztea 15 puntuaren baloratuko da.
- ✓ Obren exekuzio egoki bat lortzeko baliabideak izateari ( giza baliabideak, baliabide material eta teknikoak) 15 puntu esleituko zaizkio.
- ✓ Izaera sozialeko hobekuntzak 5 puntuaren hartuko dira kontuan. Batetik, ezgaitasunagatik lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzea 2,5 puntuaren baloratuko da. Bestetik, irabazi asmorik gabeko entitate edo erakunde sozialekin azpi-kontrataazioa beste 2,5 puntuaren baloratuko da.

Zerbitzua gauzatzeko denborari dagokionez, orokorrean 5 puntuaren baloratuko da, baina iraupena astebete laburtzeak 1,25 puntu gehituko dizkio eskaintzari. Azkenik, prezioa da eskaintzako zatirik garrantzitsuena eta gehien baloratuko dena kontratacio momentuan.

Behin lizitatzairen bakoitzak klausula hauek aplikatuta, bi eskaintza edo gehiagok puntuazio berdina lortu badute, ondorengo baldintzen arabera hartuko du Udalak kontratazko erabakia. Lehentasuna izango dute enpresa publiko zein pribatuek non, bere langileriaren %2 baino gehiago, pertsona ezgaituek osatzen duten. Baldintza hori lizitatzairen denek betetzen badute, lehentasuna emango zaio ehuneko horretatik behin betiko langile ezgaitu gehien duen epresari.

## Gasteizko Udalak

Gasteizko Udalak (Gizatea, 2011), Zezen plazaren azpian ibilgailuen hiru solairuko aparkaleku bat eraikitzeko kontratazioa gauzatu zuen 2011. urtean. Eskaintzan parte hartu zuten lizitatzaireen artean puntuazioetan berdinketa emanez gero, zein kontratatu erabakitzeko, lehentasun batzuk ezarri zituen Udalak.

Orain azalduko ditugun klausula hauek, kontratuaren adjudikazio momentuan enpresek bete behar dituztenak dira.

- ✓ Lizitatzaireek enpresako langilerian %33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonen identifikazioa eskaini beharko dute. Langileria osoaren %2 baino gehiago ezgaituak izan beharko dira eta bi enpresa edo gehiagok betetzen badute baldintza hori, behin betiko langile ezgaitu gehien duen enpresak izango du lehentasun handiena.
- ✓ Gizarteratze enpresa izatea eta bere lanpostuen %30 gutxietsitako kolektiboei zuzenduta egoteak ere lehentasuna emango die. Kolektibo hauen barne sartzen diren pertsonak honakoak dira: Gizarteratze errenta minimoa jasotzen dutenak, egoiliar izateko nahiko denbora egon ez direnak, beraz, errenta jaso ezin duten pertsonak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozen gazteak, drogekin arazoak dituztenak, lanpostu bat lortu dezaketen espetxeratuak eta pertsona ezgaituak.
- ✓ Irabazi asmorik gabeko entitateek edo erakunde sozialek lehentasuna izango dute, beti ere, erakundearen aktibitatea kontratuaren objektuarekin bat badator.

Behin lizitatzaire guztien artean bakarra aukeratuta, kontratu publikoa aurrera eramango du Gasteizko Udalak, baina kontratatu den zerbitzua martxan jartzen denean, exekuzio fasean zehazki, beste hainbat klausula ezartzen ditu Udalak kontratistak nahitaez bete beharko dituenak.

Kontratu publiko honen exekuzioa behar bezala gauzatzeko, Udalak baldintza sozio laboral eta baldintza linguistikoak txertatu ditu.

Baldintza sozio laboralei dagokienez, lan merkatura sartzeko zaitasuna duten pertsonen %20a kontratatu beharko du gutxienez enpresak zerbitzu hau burutzeko. Lan merkatura sartzeko zaitasuna duten pertsona bezala kontsideratzen dira ondorengo hauek:

- Prestazio eta errenta bereziak kobratzen dituzten pertsonak.
- Lan programetan sartuta dauden pertsonak.
- %33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten pertsonak.
- Urtebete edo gehiago etengabe lan bila dabiltsan pertsonak eta modu horretara izen emanda daudenak ziurtagiri ofizial bidez.
- 50 urte baino gehiago duten pertsonak, gutxienez hiru hilabete langabezian daramatenak eta pentsioa kobratzeko nahikoa kotizatu ez dutenak, hori egiaztatzen duten ziurtagiria dutelarik.
- 30 urtetik gorako emakumeak, lehen aldiz lan mundura sartzen direnak eta ziurtagiria dutenak, egiaztatuz.
- Ziurtagiri ofizial bidez gutxienez sei hilabete langabezian daramaten 18-30 urte arteko gazteak.

- Urtebete gutxienez langabeziaren daramaten etorkinak, honela izen emanda daudela dioen ziurtagiriaz.
- Guraso bakarreko familiak, gutxienez hiru hilabete langabeziaren egon dela bermatzen duen ziurtagiria eta bere kargu ondorengoa dituena.
- Hainbat kideko familiaren parte den pertsona, bere kargu hiru pertsona edo gehiago izanik.

Baldintza hauek betetzen direla ziurtatu dezake Gasteizko Udalak edozein momentutan. Horrela ez bada, hau da, baldintza sozio laboral hauek behar bezala betetzen ez badira, enpresa zigortua izango da kontratuaren zenbatekoaren %1 edo/eta Udalak baldintza ez betetzea oso larria dela erabakitzetan badu, %5 edo %10era heldu daiteke zenbatekoan. Zigor hau ezarriko da, Gasteizko Udalak baldintzaren ez betetzea ziurtatzen duen momentuan.

Baldintza linguistiko edo hizkuntzari buruzko baldintzetan zentratuz, Gasteizko Udalak kontratuaren exekuzio fasean, bi hizkuntzak, Euskara eta Gaztelania erabiltzen direla ziurtatu behar du. Euskara erabiltzearen normalizazioa indartu behar du, herritarren eskubide linguistikoak defendatzu.

Beraz, teorian klausula sozialei ematen zaien garrantzia handiaz gain, errealtitatean praktikan jartzen direla erakusten dute adibide hauek. Hiru probintzietako adibide hauekin ikus dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak klausula ezberdinak aplikatzen dituela kontratacio publikoa gauzatzerako orduan eta normalean nahiko antzekoak diren baldintzak ezartzen dituztela guztiekin. Teorian azaldu dugun moduan, kontratazioko edozein fasetan barneratu daitezke klausulak, Gasteizko Udalaren kasuan ikusi dugun bezala, kontratuaren adjudikazio eta exekuzio fasean barneratzen ditu baldintzak.

### 3.4. Klausula sozial motak

Kontratu publikoetan barneratu daitezken klausulak ugari dira, baina klausula sozial motak ez hainbeste, izan ere, klausula sozial mota garrantzitsuenak hitz gutxitan azaldu daitezke. Andaluziako Juntak (Junta de Andalucía, 2011) argitaratutako txostenean dioenez, ingurumenarekin erlazionatutako klausulak eta mota sozialeko klausulak dira, zehazki esanda, garrantzi gehien dutenak. Bi mota hauen barnean, klausula sozial ugari ager daitezke kontratu publikoak aurrera eramateko baldintza izango direnak.

Ingurumeneko klausula sozialei dagokienez, sektore publikoak kontratu publiko bat egiteko lehentasuna emango die baldintza hauek betetzen dituzten enpresei.

Hainbat baldintzen artean, honako hauek dira sektore publikoak kontuan hartuko dituen batzuk:

Batetik, garrantzia emango zaio enpresak ingurumeneko kudeaketarako legedia aplikatzea enpresaren jardueran eta nolabaiteko ingurumeneko ziurtagiriak eskuratuak izatea, enpresaren ekoizpenean ingurumeneko baldintza egokiak ematen direla bermatzen dutenak. Horrez gain, baldintza bezala enpresei eskatu ahal zaie ingurumenean duten eragina aztertzea, honela eragin kaltegarriak ekiditeko asmoz.

Bestetik, kontuan hartuko da enpresek energia berritzaleei aukera bat ematea, hala nola, eguzki energia aprobetxatuko duten instalazioak edo kontsumo txikiagoko bonbillak erabiltzea, honela, energia aurrezteko.

Ekoizpenean erabiltzen diren produktuak ez-toxicoak izatea edo/eta beraien hornitzaleei erosten dizkienetan produktuak kutsakorrak ez izatea eska dezakete. Hala nola, enpresak hondakinak gutxitzea eta birziklatzea ere baldintzen barne sar daiteke.

Enpresako langileak ere baldintzen artean egon daitezke, ingurumenaren arloan ikastaroak egitera behartuz enpresak kontratuaren publikoetan parte hartu ahal izateko.

Mota sozialeko klausulei dagokienez, garrantzitsuenak edo gehien barneratzen diren baldintzak, gutxietsitako edo ezgaitutako kolektiboak edo baztertutako pertsonak lan munduan sartzearekin erlazionatuta daude.

Gogoratu behar gara, kontratazioan barneratzeko klausulak borondatezkoak edo nahitaez aplikatu beharrekoak izan daitezkeela. Kasu honetan, enpresentzat nahitaezko baldintza EGL (Ezgaituaren Gizarteratze Legea) betetzea da. Apirilaren 7 ko 13/1982 lege honek dioenez, beharrezkoa da 50 langile baino gehiagoko enpresek, bere langileriaren %2 ezgaitasuna duten pertsonek osatua izatea kontratazio publikoan parte hartu ahal izateko. Hala ere, edozein arrazoirengatik aurreko obligazioa bete ezin duten enpresek, beste aukera batzuen bidez pertsona ezgaituen aldeko ehuneko hori bete ahal izango dute (Boletín Oficial del Estado, 1982).

Horrez gain, ez dira beharrezko izango, baina kontratazio publikoan eragingo duten beste hainbat baldintza daude, hala nola, enpresaren ekoizpen fasearen zati bat aurrera eramateko edo nolabaiteko laguntza lortzeko, alderdi sozialeko enpresekin akordioak egitea. Bestalde, garrantzi handia duen gaia berdintasuna da, enpresek gizon eta emakumeen artean berdintasuna egon dadin egiten duen lana kontutan hartuko da kontratazioan.

Hala ere, badaude klausula sozialak beste modu batetan banatzen dituzten autoreak. Hala nola, Martínezek(2009) bere txostenean azaltzen du, klausula sozialak hiru zatitan bana daitezkeela.

Batetik, lan arauak sustatzeko klausulak bereizten ditu. Lizitatzailleen partetik lan arauak bete daitezen bermatzeko, legeak hainbat ate irekitzen ditu klausula sozialen bidez honako hau lortzeko. Hala nola, Administrazioak kontuan hartu dezake enpresa kontratisten Gizarte Segurantza eta bere antzinatasuna. Legeak oso argi azaltzen du ere, kontratu publiko batean ezingo dutela parte hartu kalte sozial oso larriak egin dituzten lizitatzaillek. Kalte larri moduan uler

ditzakegu beste hainbaten artean, lan arriskuak ez ekiditea edo/eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ez babestea.

Bestetik, lan politiketan barneratzeko klausulak aztertzen ditu. Autore honen ustez, oso zaila da klausula sozialak baldintza moduan ezartzea kontratu publiko baten esleipenean, izan ere, kontratuaren objektuarekin zuzenean bat ez badatoz, legeak ez du onartzen klausula sozialak barneratzea, hau da, klausula sozialak baldintza moduan barneratzeko, beharrezkoa da kontratu publikoak duen helburu berdina izatea. Ondorioz, kontratu publiko baten helburua, sektore sozialetara bideratutako laguntha programak burutzea bezalako salbuespenak alde batera utziz, orokorrean klausula sozialak ezingo dira kontratu publiko baten adjudikazio fasean barneratu, oso gutxitan izango baitute kontratuaren helburu bera.

Hala ere, badakigu klausula sozialak kontratazioaren fase ezberdinan barneratu daitezkeela, beraz, kontratu publiko baten exekuzio fasean posible da lan politikekin harremana duten klausulak barneratzea. Hala nola, lan merkatura barneratzeko zaitasuna duten pertsonen inguruko baldintzak, langabeziaren aurkakoak edo lan munduan gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunen inguruko baldintzak.

Azkenik, arlo soziala sustatzeko klausulak aipatzen ditu azken bereizketa moduan. Klausula mota hauen helburua, interes sozialak sustatzea da, adibidez, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, langileen lan baldintzen hobekuntza eta abar. Azken finean, ekonomia soziala bultzatzea du helburu. Klausula sozial hauek, kontratu publiko baten adjudikazio fasean barneratzen dira, lehentasuna emanet baldintza sozial hobeak eskaintzen dituzten lizitatzaleei.

Batetik, lehentasuna emango zaie beren langileriaren %2a baino gehiago ezgaituak diren enpresei. Bestetik, gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonen %30 kontratatzeko prest dauden enpresek ere lehentasun gehiago izango dute kontratu publikoa lortzeko garaian. Irabazi asmorik gabeko erakundeek aukera gehiago izango dituzte, beti ere, beraien jarduerak kontratu publikoaren objektuarekin erlazio zuzena badu. Azkenik, ondasunak hornitzerako kasuan, adibidez langileentzako jantziak erosterako orduan, bidezko merkataritzako erakundeek izango dute lehentasuna kontratazioan (lehengai ekologikoak erabiltzen dituztenak, etab). Hala ere, klausula hauak kontratazioaren fasean barneratuko dira legeak onartzen badu eta beti ere, konpetentzia askean jartzen duen oztopoa ez bada lortuko dituen onura sozialak baino askoz handiagoa.

Aipatu ditugun autoreek, klausula sozialak sailkatzeeko modu ezberdina dute eta bakoitzak pertsonalki era batera edo bestera bereizten ditu. Hala ere, ikusi ditugun sailkapen horiez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan zentratuz, Administrazio Publikoak kontratatzeko garaian garrantzi handia ematen dion baldintza hizkuntzarena da. Kasu honetan, enpresa barnean Euskara erabiltzea edo/eta hori bermatzen duen ziurtagiri bat lortzea, euskara planen bat aurrera eraman izana edo euskara bultzatzeko egiten diren lanak kontuan hartuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011-2015 urteetarako argitaratutako gobernu programan azaltzen duen moduan, zehazki “Euskara Zuzendaritza” atalean, hainbat estrategien artean, “Euskaraz ariko den Aldundia izatea eta Euskararen arloan eragile izatea” lortu nahi du, eta bere helburuak lortzeko hainbat ekintza planteatzen ditu, hala nola, “Euskara plana edo hizkuntza kudeaketaren ziurtagiria duten enpresak hobetsi Aldundiaren kontratazioetan” eta “Diru laguntza politika berria, euskalgintzarekin adostuta”. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011, 13)

### 3.5. Klausula sozialak eta merkatuko lehia librearen arteko gatazka

Gaur egun gaztaka handia dago klausula sozial eta merkatuko lehia librearen artean. Martinez(2009) autorearen ustetan, nahiz eta klausula sozialek helburu sozialen alde egiten duten bidezko merkataritza (“Comercio justo”) defendatuz, hau da, merkatura sartzeko zaitasunak dituzten kolektiboen parte hartzea bultzatzuz, beste hainbat aspektu sozialez gain, lehia librearen printzipioa ezin dute urratu. Printzipo honek, batez ere, helburu ekonomikoak defendatzen ditu, eta nahiz eta klausulek ekonomia solidario baten alde borroka egin, debekatuta daude, merkatuko lehia mugatzen duten klausulak, azken finean, debekatuta dago helburu ekonomikoak oztopatzetan dituzten klausulak kontuan hartzea. Beraz, nahiz eta ekonomian aldaketa sozial bat ematen saiatu, helburu ekonomikoek lehentasuna izango dute, gehienetan.

